




## *gure domeinua*

**Euskara ingurune digitalean: non gaude eta  
nola eragin ikastetxetik?**

Hizkelan4 - 2019/10/15

# PuntuEUS 2020



## Xedea

.EUS domeinuaren bidez, euskara, ingurune digitalean, baliogarri, erabilgarri eta ikusgarri egitea.

## Ikuspegia

Ingurune digitalean EUSKARA lehen mailako hizkuntza izatea.

# PuntuEUS 2020



## Xedea

.EUS domeinuaren bidez, euskara, ingurune digitalean, baliogarri, erabilgarri eta ikusgarri egitea.

## Ikuspegia

Ingurune digitalean EUSKARA lehen mailako hizkuntza izatea.



# Euskararen egoera ingurune digitalean

## Euskara Interneten 2018

Iturria: PuntuEUS Behatokia <https://www.domeinuak.eus/eu/behatokia/>


### Euskarazko edukia Euskal Herriko Interneten

Euskaraz edukiren bat  
16,5%




# Euskararen egoera ingurune digitalean

## 2019 This Is What Happens In An Internet Minute



## Netflix is Responsible for 15% of Global Internet Traffic

Distribution of worldwide downstream traffic, by web application



\* Digital container format for the transmission and storage of audio, video, and data.

\*\* Security protocol

\*\*\* Network protocol designed to speed up online web applications



@StatistaCharts

Source: Sandvine | The Global Internet Phenomena Report



# Euskararen egoera ingurune digitalean

**INGURUNE DIGITALA:** Pertsonen artean, eta, makinaren eta pertsonen artean komunikazio eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalek osatzen dute ingurune digitala.



# Euskararen egoera ingurune digitalean

Ok Google, turn on the Light.

I got it, turning on the Light.

"Turn on the Home Outlet"

OK, the Outlet is on.

"Alexa, turn on the outlet."

"OK."







# Euskararen egoera ingurune digitalean

Iceland

## Icelandic language battles threat of 'digital extinction'

Iceland's mother tongue and cultural identity is drowning in an online ocean of English

# The Guardian



Jon Henley in  
Reykjavík

@jonhenley

Mon 26 Feb 2018  
11.50 GMT




In an age of Facebook, YouTube and Netflix, smartphones, voice recognition and digital personal assistants, the language of the Icelandic sagas - written on calfskin between AD1200 and 1300 - is sinking in an ocean of English.

“It’s called ‘digital minoritisation’,” said Eiríkur Rögnvaldsson, a professor of Icelandic language and linguistics at the University of Iceland. “When a majority language in the real world becomes a minority language in the digital world.”

Iturria: The Guardian 2018/02/26 <https://labur.eus/ITXuu>

# Euskararen egoera ingurune digitalean



■ Euskaraz jar daitezke ■ Ezin

Aztertutako gailuak: 3.657

Euskaraz jar daitezke: 2.399, %65.60


Aztertutako markak: 99

Aztertutako modeloak: 680

(datu eguneraketa: 24 orduero)

**Grafikak:** Lehen Hitza APP bidez jasotako datuak, euskaraz jar daitezken mugikorrak eta mugikorretan instalatutako hizkuntzak. Lagina: 3.700 mugikor.

Iturria: <https://www.lehenhitza.eus/mugikorrak>



## Interneten ere, lehen hitza euskaraz



Sustatzaileak:



CodeSyntax



Helburua: erabiltzaileak kontzientziatzea norberaren nabigatzaile, mugikor eta webguneen konfigurazioa euskaraz jartzeko.

Horretarako eskuragarri:

- Lehen Hitza mugikorrerako APPa
- Eskoletarako unitate didaktikoa (DBH)
- Nabigatzaileak konfiguratzeko scripta
- Webguneak konfiguratzeko azalpenak



## Euskaraz



Zorionak , Euskaraz nabigatzen ari zara !

lehen hitza

## Erdaraz



Ups!  
Dirudienez, ez zara ari euskaraz nabigatzen. Bazenekien?

KONFIGURATU

## 1 GALDEKETA OSATU

Egingo dugun ikerketa abiatzeko, ezer baino lehen, galdera batzuk erantzuteko eskatu nahi dizugu. Horien bitartez datuak jaso eta ondorioak aterako ditugu.

Normalean erabiltzen dituzuen gailuen hizkuntzaren konfigurazioaren inguruko galderak aurkituko dituzue galdetegian: zein hizkuntzatan konfiguratu daukazuen gailuak, hizkuntza konfiguratu zitekeenik bazenekiten,... Zuen gailuen sistema eragile eta nabigatzaileen inguruko galderak ere topatuko dituzue galdetegian.

Daukazuen gailuen arabera erantzun galdetegiak. Gailu bat baino gehiago badituzue, galdetegiak behar adina alditan erantzun.

- Telefonoaren inguruko galderak erantzuteko, klikatu [HEMEN](#).
- Ordenagailuari dagozkionak erantzuteko, klikatu [HEMEN](#).
- Tableta erabiltzen baduzu, klikatu [HEMEN](#).

Zenbat eta erantzun gehiago jaso hobea. Horregatik, zuk zeuk erantzun ondoren, etxekoiei eta ingurukoiei betetzeko eskatzea interesgarria izango da oso.

Galdetegiak anonimoa da, izen-abizenik ez duzu jarri behar, baina jasotzen ditugun datuak fidagarriak izan daitezen, ikasle bakoitzak behin bakarrik bete behar ditu galdetegiak.



## 2 IKERTU eta HAUSNARTU

Lehenhitza.eus webgunean, tarteka, galdetegian jasotzen diren emaitzak argitaratu egingo dira. Norberak berea betetzen duenean ere, ordura arteko erantzunen emaitzak eta grafikoak ikusi ahal izango dituzue.

Jasotako datuak txantilo [HONETAN](#) jasoko dituzue. (Editatu ahal izateko kopia egin behar duzue)

Galdtegitik jasoko dituzuen emaitzak osatzeko, gelan, ondorengo ikerketa egitea proposatzen dizuegu. 4-5 ikasleko talde bikitan banatu. Talde erdiek A ikerketa egingo dute, beste erdiek, berriz, B ikerketa.

Ikerketa horren emaitzak ere txantilo berean jasoko dituzue.

### A ikerketa:

1. Telefono marka eta modelo desberdinen ezaugarriak Interneten bilatu eta euskaraz konfiguratu daitezkeen edo ez adierazten duen informazioa jasoko duzue. Galdetegiaren emaitzetan gehien agertu diren modeloen baitan egin dezakezue ikerketa.
  - Samsung, BQ, iPhone, LG, edo dagokion webguneetan sartuta.
  - Euskaltel, Movistar edo telefonoak online saltzen dituzten saltokietako (Fnac, Mediamarkt, Amazon, ...) webguneetan begiratuta.
2. Zuen inguruko telefono dendetara joan eta euskaraz konfiguratzeko aukera zein telefonok duten galdetuko diozue saltzaileari.

### B ikerketa:

Herriko erakundeen (udaletxe, kultura-etxe, ikastetxe,...) edo fabrika eta saltokien webguneen zerrenda egingo duzue. Ondoren, beren edukiak euskaraz eskaintzen dituzten edo ez aztertuko duzue. Webguneak euskaraz baleude, euskaraz ematen den informazioa beste hizkuntzatan dagoen informazioaren parekoa den ere aztertuko duzue.

# {/} kaixomundua.eus

Ekimenaren xedea da ikasleek **webgune erreal bat sortzea** praktikan oinarritutako lan motibatzaile baten bidez, aukera izan dezaten **kontsumitzaile digital izatetik sortzaile digital izatera pasatzeko**.

Bestalde, trebakuntza teknologikoa behar duten **irakasleen prestakuntza** ere indartu nahi du lehiaketak.

[www.kaixomundua.eus](http://www.kaixomundua.eus)

## Abiapuntua

- Gazteen alfabetizazio digital baxua, kontsumitzaile baina ez sortzaile
- Webgune ratio txikia, euskarazko eduki gutxi
- Emakumearen beheranzko presentzia ingurune digitalean
- Webgune bat sortu edo kudeatzen jakitea oinarrizko konpetentzia arlo profesionalean
- Hezkuntza formaletik erantzun antolaturik ez, informatika hautazkoa da.

# {/} kaixomundua.eus

**Proiektuaren dinamika honakoa izango da:**

## **Izen-ematea**

Talde parte-hartzaileei kode bat emango zaie. Kode honen bidez, doan izango dute .EUS domeinu bat eta hostinga, proiektua bertan ostatatzeko.

## **Garapena**

Taldeka web proiektua sortuko dute. Hau egiteko kaixomundua.eus web gunean dauden bideo tutorialak izango dituzte erabilgai.

## **Ebaluazioa**

Egindako lana gelan ebaluatzeaz gain, kaixomundua.eus lehiaketan aurkezteko aukera izango dute.

Aholkularitza, prozesu osoan zehar izango duzue, eskola bakoitzaren beharrei egokitzuz.

## Oinarriak

- 2-5 ikasleko taldetan
- Irakasleak gidatuta
- Gai librea
- Proiektu transbertsala
- Euskaraz
- Proiektu errealak
- Epaimahai profesional
- Irakasleentzako doako trebakuntza
- Lotura arlo profesionalarekin

## Kategoriak

- DBH 1-2
- DBH 3-4
- Batxilergoa
- Lanbide Heziketa

## Egutegia

- Iraupena: irailetik maiatzera
- Izen-ematea: irailean
- Proiektuak aurkeztea: martxoan
- Sari-banaketa maiatza

### Irabazleentzat



Garaikurra kategorian bakoitzeko ikasle, irakasle eta ikastetxe irabazleentzat.

### Parte-hartzaile guztientzat



Diploma parte hartzen duten ikasle, irakasle eta ikastetxe bakoitzarentzat.




# Prozesu gidatua

## Ikasleentzat trebakuntza

- Bideo laburren bidez ikasleek behar duten trebakuntza jasoko dute.
- Bideo labur eta praktikoak: zergatia, testu-ingurua eta pausu teknikoak
- Urte osoan zehar irekiak egongo dira bideoak noiznahi ikusteko.
- Zalantzak argitzeko tartekak egongo dira.

<https://kaixomundua.eus/webgunea-diseinatzen-hasi/>



## Irakasleentzat laguntza

- Kaixomundua.eus webgunean irakasleentzat beharrezko informazioa argitaratu da.
- Horrez gain, aholkularitza, prozesu osoan zehar izango duzue, eskola bakoitzaren beharrei egokituz.

<https://kaixomundua.eus/irakasleen-gida/>

1

Hasi baino lehen jakin beharrekoak

Atal honek, **proiektuaren zergatia eta norabidea, STEAM Euskadi Estrategia eta kompetentzien lanketa** jasotzen du.

Deskargatu

2

Webgunea zergatik eta nola?

Txosten honetan, **zergatik webgune bat (ariketak), domeinu eta hosting-a zer den eta WordPressa pausuz pausu** azaltzen du.

Deskargatu

3

Nola ebaluatu daiteke?

Gida honek, **ebaluazio teknikoa (gida bat) eta ebaluazio akademikoa (kompetentzien lanketa eta ebaluazioa)** erakusten du.

Deskargatu



**irakasleari laguntzeko nahi horretan.**

# {/}kaixomundua.eus

**2019 - 2020 ikasturteko deialdia zabalik!**

**[www.kaixomundua.eus](http://www.kaixomundua.eus)**

**Harremanetarako:**

Leire Palacios

[info@kaixomundua.eus](mailto:info@kaixomundua.eus) / 943 085051

# Ondorioak

- Euskarak badu eskaintza sarean, **badago edukia eta badaude tresnak, baina ez dira nahikoa**, ingurune digitala aldatuz baitoa.
- Erabiltzaileak trebatu eta motibatu behar ditugu gure **komunitate digitala indartu** eta belaunaldi berriak sarean euskaraz kontsumitu eta sortzera bultzatu.
- Euskararen bizitasun digitala bermatu nahi badugu **eskaintza eta eskaria, biak, indartu behar ditugu**.

# Mila Esker!



*gure domeinua*

Aurkezpena: <https://labur.eus/hizkelan>

Lehen Hitza: <https://www.lehenhitza.eus/>

Kaixo Mundua: <https://kaixomundua.eus/>

**Josu Waliño**

Zuzendari Nagusia

PuntuEUS Fundazioa

josu@domeinuak.eus | @JWalino